

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2019/2020 ikasturtea**

**SENTITZEN ZARENA ZARA**

**Egilea:** Alazne Aja Portillo

**Zuzendaria:** Urtza Garay Ruiz

**Leioan, 2020ko maiatzaren 27an**

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	4
<b>1. Marko teorikoa</b> .....	5
1.1. Terminologia.....	5
1.1.1. Sexu-aniztasuna .....	5
1.1.1.1. Sexu biologikoa .....	5
1.1.1.2. Genero identitatea.....	5
1.1.1.3. Orientazio sexuala .....	7
1.2. Transgeneroaren bilakaera.....	7
1.3. Transgeneroa.....	8
1.3.1. Transgeneroa eta hezkuntza.....	8
1.3.1.1. Transgenero gaia lantzeko materiala Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalean.....	10
1.3.2. Transgeneroa eta familia .....	11
1.4. Legeak .....	12
<b>2. Proposamen didaktiko berritzailea: Sentitzen zarena zara</b> .....	14
2.1. Justifikazioa .....	14
2.2. Helburuak .....	14
2.3. Konpetentziak .....	14
2.4. Edukiak.....	16
2.5. Nori zuzenduta.....	16
2.6. Proposamen didaktiko berritzailearen deskribapena.....	16
2.6.1. Jardueren deskribapena .....	17
<b>3. Balioztatze proba</b> .....	20
3.1. Helburua .....	20
3.2. Lagina.....	20

3.3. Metodologia .....	20
3.4. Emaitzak .....	21
<b>4. Ondorioak .....</b>	<b>22</b>
<b>5. Erreferentzia bibliografikoak.....</b>	<b>23</b>
<b>6. Eranskinak .....</b>	<b>27</b>
1. Eranskina. Glosategia.....	27
2. Eranskina. Irakasleari bideratutako <i>Sentitzen zarena zara</i> material didaktiko berritzailearen gida .....	29
3. Eranskina. <i>Sentitzen zarena zara</i> material didaktiko berritzailearen jarduerak ..	30
4. Eranskina. Balioztatze proba .....	56

## SENTITZEN ZARENA ZARA

Alazne Aja Portillo

UPV/EHU

Gaur egun genero binarismotik kanpo dauden identitateekiko diskriminazioa gizarteko eremu guztietan antzeman daiteke, baita familian eta hezkuntza sisteman ere. Beraz, eskoletan transgeneroen gaineko ulermena, sentsibilizazioa eta errespetua sustatzeko helburuarekin, *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailea sortu da. Material hau Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendutako webgune bat da. Bertan, jarduerak ez ezik, bestelako baliabide desberdinak ere eskuragarri egongo dira gaiaren ikaskuntza arrakastatsua ahalbidetzeko, guztietan euskara oinarritzko hizkuntza izanik. Materiala 48 umerekin frogatu da eta aurkeztu duten asebetetasun maila altua izan da. Izan ere, eskuratutako emaitzen artean, ume gehienek *Sentitzen zarena zara* materialak transgenero gaiaren inguruan ikasteko aukera eskaini diela zehaztu dute, baita ikaskuntza garapen bat ahalbidetzeko modu digital egokia dela ere.

*Transgeneroa, hezkuntza sistema, familia, transfobia, berrikuntza*

La discriminación hacia las identidades que hoy en día están fuera del binarismo de género se puede detectar en todos los ámbitos de la sociedad, también en la familia y en el sistema educativo. Por lo tanto, con el objetivo de fomentar la comprensión, sensibilización y respeto hacia los transgéneros en las escuelas, se ha creado un innovador material digital llamado *Sentitzen zarena zara*. Este material es una web dirigida al alumnado de 6º de Primaria. En ella, además de actividades, estarán disponibles otros recursos diferentes para posibilitar el aprendizaje exitoso del tema, siendo el euskera la lengua básica en todos ellos. El material se ha probado con 48 niños y niñas y el grado de satisfacción presentado ha sido alto. De hecho, entre los resultados obtenidos, la mayoría de los niños y niñas han precisado que el material *Sentitzen zarena zara* les ha brindado la oportunidad de aprender sobre el tema transgénero y que la forma digital usada es adecuada para posibilitar un desarrollo en el aprendizaje.

*Transgénero, sistema educativo, familia, transfobia, innovación*

Discrimination against identities that are currently outside the gender binary can be detected in all areas of society, including in the family and in the education system. Therefore, in order to promote understanding, awareness and respect for transgender people in schools, an innovative digital material called *Sentitzen zarena zara* has been created. This material is a website aimed at 6th grade primary school students. In it, in addition to activities, other different resources will be available to enable a successful learning of the subject, with Basque being the basic language in all of them. The material has been tested with 48 children and the degree of satisfaction presented has been high. In fact, among the results obtained, most of the children have stated that the *Sentitzen zarena zara* material has given them the opportunity to learn about the transgender issue and that the digital form used is adequate to enable a learning development.

*Transgender, education system, family, transphobia, innovation*

## Sarrera

Gaur egungo gizartea ez da homoginoa, nahiz eta askok gizartean uniformetasuna eta ordena berrezartzeko ilusioa izan. Hau da, gizartea kulturalki, sozialki, politikoki eta sexu-generoari dagokionez plurala da. Beraz, azken honetan oinarrituta, argi dago sexu-aniztasunak azken hamarkadetan aurrerapauso handia izan duela ikusgarritasunean, onespén mailan, baita lege-esparruan ere. Hori dela eta, gizartea osatzen duten pertsona guztiekiko eta haien eskubideekiko errespetuak aniztasuna onartzea eskatzen du (Del rio, 2016; Stee-eilas, 2015).

Hala ere, gaur egun oraindik ere pertsona transen aurkako diskriminazio kasuak daude (Francia-Martínez, Esteban eta Lespier, 2016). Ildo beretik, gizartean ez ezik, bazterketa hori hezkuntza sisteman ere ematen da, eskola transfobia deituriko diskriminazioa pairatzeko leku gakoa baita (Russell et al., 2010, Bullidok eta Mateosek aipatua, 2017).

Hori dela eta, transfobiari aurre egiteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman transgenerismoa lantzeko premiaren aurrean, proposamen digital berritzailea sortu da; izan ere, hezkuntza gizarteko genero-estereotipoak hausteko eta diskriminazioa ekiditeko erreminta nagusietariko bat da (Spalding et al., 2010, Bullidok eta Mateosek aipatua, 2017). Horretarako, lehenengo, marko teorikoa sortzea ezinbestekoa izan da. Beraz, azken hau aurrera eramateko, aztertutako gaiari buruzko informazio ziurra kontuan hartu da, transgeneroen inguruko ezagutza bereganatuz.

Hortaz, aipatutako atal teorikoa garatu da eta honetan oinarrituta material didaktiko berritzailea sortu da, zeinak transgenero gaia ezagutzearekin eta errespetatzearekin batera, gizartean dagoen aniztasuna onartzea helburu duen. Bertan, ikasleek era digital batean 10 zeregin burutzeko parada izango dute eta honekin batera azalpenak, bideoak eta abestiak erabilgarri izango dituzte. Horrez gain, zehaztutako xedea lortzeko, irakasleentzako *Sentitzen zarena zara* materialaren inguruko gida eskuragarri egongo da, gaiaren lanketa eraginkorra bermatzeko asmoz.

Ildo beretik, sortutako material digital berritzailearen asebetetasun maila neurtzeko, aurrera eramandako balioztatze probaren ezaugarriak zehaztu dira, baita honetatik ateratako emaitza nabarmenenak ere.

Amaitzeko, aurretik aipatutako guztia kontuan hartuz, ondorioen atala eskuragarri egongo da, non Gradu Amaierako Lan honetan gailendu diren alderdi onuragarriak aipatzeaz gaiz, prozesuan zehar izandako mugak ere ikusgai suertatzen diren.

## **1. Marko teorikoa**

### **1.1. Terminologia**

Transgenero gaia landu aurretik, komenigarria da gaiari lotutako zenbait kontzeptu argi izatea, sexu-aniztasuna eta hortaz, transgenerismoa ondo ulertzeko. Horretarako, sexu-aniztasuna ez ezik, sexu biologikoa, genero identitatea eta orientazio sexuala terminoak ere azalduko dira hurrengo orrialdeetan.

#### 1.1.1. Sexu-aniztasuna

Sexu-aniztasunak sexu-genero sistema bitarrak eskaintzen dituen eredu bakarrak eta itxuraz estatikoak zalantzan jartzen ditu. Izan ere, kontzeptu hau pertsona bakoitzak bere identitatea, gorputz prozesua, praktikak eta harremanak nola bizi dituen adierazteko aukera zabal batean datza. Hau da, sexu-aniztasuna da, sexu biologiko, genero identitate eta orientazio sexualen aniztasunari modu inklusibo batean erreferentzia egiteko erabiltzen den terminoa (Peixoto, Fonseca, Almeida eta Almeida, 2012).

##### 1.1.1.1. Sexu biologikoa

Pertsona guztiek sexu biologiko bat dute, ezaugarri biologikoen osatutakoa, hau da, genitalek, gonadek, kromosomek eta hormonek; beraz, pertsona guztiak izaki sexuatuak dira. Pertsona gehienek alua eta umetokia edo zakila eta testikuluak dituzte; hortaz, sexu biologikoaren arabera, pertsonak gizonezkoetan edo emakumezkoetan bereizten dira. Hala ere, gutxi batzuek gizonezkoen eta emakumezkoen ezaugarri biologikoak eta sexualak garatzen dituzte. Kasu hauetan, pertsona hauek intersexual gisa sailkatzen dira, beraz, sistema bitar tradizionaletik kanpo geratzen dira (Stee-eilas, 2015; Herrero eta Díaz, 2009).

##### 1.1.1.2. Genero identitatea

Genero identitatea norberaren indibidualtasunaren kategorizazioa da, non kulturalki eta sozialki ezarritako generoari buruzko ikuskera garatzen den. Genero identitateak ez du beti jaiotzerakoan esleitutako sexu biologikoarekin bat egin behar (Herrero eta Pérez-Cañaveras, 2007). Hau da, norbanakoak bere generoari buruz duen hautemate propioa da,

sentitzen dena adieraziz, emakume, gizon edo bestelako zerbait, sistema bitarrari uko eginez (Stee-eilas, 2015). Genero identitatearen eraikuntza pertsonaren lehenengo haurtzaroan hasten da, gizarteko genero-rol sozialak errepikatuz (Soley-Beltran, 2009, Nosedak aipatua, 2012).

Beraz, jaiotzean esleitutako sexu biologikoa eta genero identitatea bat badatoz, pertsona zisgenero gisa identifikatzen da; aldiz, bat ez badatoz, pertsona transgenero moduan definitzen da (Rodríguez, 2016, Rodriguezek eta Facalek aipatua, 2019).

Hortaz, pertsona transgeneroetan genero identitateak ez du bat egiten jaiotzeko sexu biologikoarekin eta honek tradizionalki dakartzan generoarekin; hau da, pertsona transgeneroentzat generoa infinitua, plastikoa eta malgua izango litzateke, baita gorputza ere (Rodríguez, 2003, Nosedak aipatua, 2012). Hala ere, ez ditu kirurgiaren bidez bere genitalak aldatu nahi (Mejía, 2006, Nosedak aipatua, 2012), bere gorputz biologikoa bere neuronal sexuarekin eta genero identitatearekin bateragarria izan daitekeelako (Carvajal Villaplana, 2018). Pertsona transgeneroei buruz hitz egiterakoan nolabaiteko adostasuna dago; hala nola emakume transgenero deitzea sexu biologikoa gizonezkoa eta genero identitatea emakumezkoa denean; gizon transgenero izendatzea sexu biologikoa emakumezkoa eta genero identitatea gizonezkoa denean; edo pertsona trans deitzea, gizonezko-emakumezkoen sailkapen bitarraren barruan identifikatzen ez denean, sistema bitarrari uko eginez (Comisión Interamericana de Derechos Humanos, 2012, Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos-ek aipatua, 2013).

Transgenerismoak identitate desberdinak ditu bere baitan; izan ere, transexualek, trabestiek, etab.-ek ere ez dute haien genero identitatea jaiotzerakoan duten sexu biologikoarekin identifikatzen eta adierazten (Bullido eta Mateos, 2017).

Alde batetik, transexualak ez dira jaiotzerakoan esleituriko sexu anatomiarekin identifikatzen, ezta azken honi egokitutako generoarekin ere; hau da, transexualek jaiotzerakoan sozialki eta kulturalki esleitzen zaien kontrako generoarekin bat egiten dute (Naizen Elkarte, 2015; Asociación de Psicología de Puerto Rico, 2014, Francia-Martínezek et al. aipatua, 2016). Beraz, esku-hartze mediko baten aldeko apustua egiten dute, hormonal, kirurgikoa edo biak, beren itxura fisikoa haien errealitate psikikora egokitzeko (Rodríguez eta Facal, 2019; Comisión Interamericana de Derechos Humanos, 2012, Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos-ek aipatua, 2013).

Beste azpikategoria batzuek ez dute zertan gorputz-aldaketarik ekarri behar, hala nola pertsona trabestiak. Orokorrean, haien genero identitatea adierazteko, beren sexu biologikoari sozialki eta kulturalki esleitzen zaizkien aurkako generoko jantziak eta jarrerak erabiltzen dituzte. Hala ere, haientzat, genero identitatea behin betiko edo aldi baterako izan daiteke (Comisión Interamericana de Derechos Humanos, 2012, Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos-ek aipatua, 2013).

#### 1.1.1.3. Orientazio sexuala

Orientazio sexuala sexu biologiko edo genero identitatearekiko independentea izanik, pertsona bakoitzak besteekiko duen erakargarrtasun emozional, afektibo eta sexuala da. Hortaz, transgeneroa gizabanakoaren genero identitateari eta ez bere sexu orientazioari dagokio; beraz, transgeneroak heterosexual, homosexual edo bisexual izan daitezke, beste sexu joera askoren artean (Shibley y DeLamater, 2006, Blake, 2011, Rodriguezek eta Facalek aipatua, 2019; Principios de Yogyakarta, 2006, Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos-ek aipatua, 2013).

### 1.2. Transgeneroaren bilakaera

John F. Olivenek 1965.urtean erabili zuen lehen aldiz transgenerismo terminoa bere *Sexual Hygiene and Pathology* liburu medikuan, nahiz eta transgenerismo hitza transexualitateari buruz hitz egiteko erabili (Treviño, d.g.). Aipatzekoa da, lehen baita ere, sexu orientazioaren eta genero identitatearen kontzeptuak elkar nahasten zirela. Beraz, transgenerismoak 70. hamarkadan izan zuen bere zabaltzea eta zehaztapena Virginia Prince feministari esker. Honek emakumez jantzi eta hormona feminizatzaileak hartzea erabaki zuen emakume identifikatzen zelako, baina gizonezkoen genitalak mantendu nahi zituen. "Trabesti" eta "transexual" kontzeptuekin identifikatzen ez zenez, "transgenerismo" eta "transgenerista" hitzak asmatu zituen. Virginia Princek aurreko termino hauek bizi nahi duten generoan aukeratzen duten pertsona horiei erreferentzia egiteko sortu zituen, kirurgia genitala izateko asmorik gabea (Mas Grau, 2015).

Horrez gain, transgeneroaren bilakaerari dagokionez, 2018. urtean, MOE (Munduko Osasun Erakundea)-k pertsona transgeneroak eta transexualak buru-nahasteen zerrendatik ezabatu zituen. Izan ere, GNS (Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, MOE-k sortutako sailkapen mediko bat)-10ak, 1992. urtean garatu zena, genero identitatearen nahastea buru eta portaera nahastei eskainitako kapitulu baten barruan sailkatu zuen.



Hala ere, GNS-11 bertsio berrian, zeina 2022an indarrean egongo den, genero identitatearen nahastea pertsona batek esperimentatu duen generoaren eta jaiotzean esleitutako sexuaren arteko inkongruentzia gisa definitzen da. Hortaz, genero identitatearen nahasteak sexu osasunari buruzko sailean sailkatzen dira, transgenerismoa baldintza eta ez psikopatologia dela baieztatuz (El Confidencial, 2019; Borraz, 2018).

### **1.3. Transgeneroa**

Transgeneroak beren genero identitatea haien sexu biologikoarekin bat ez datorrela sentitzen duten pertsonak dira (APPR, 2014, Francia-Martínezek eta al. aipatua, 2016). Aurrekoari lotuta, gaur egungo ikerlanek azaltzen dute LGTB kolektiboaren barruan transgeneroak eta transexualak direla gizartean, eremu pertsonalean, hezkuntzan, osasunean eta lan-arloan diskriminaziorik handiena jasotzen dutenak (Marín, 2016). Ildo beretik, diskriminazio hau familiako kideengatik baita eskola sistemagatik ere pairatzen denean, nortasunaren garapenean eragindako kaltea larria izaten da (Peixoto et al., 2012).

#### 1.3.1. Transgeneroa eta hezkuntza

Eskolak hezkuntza sistemako irakasgaietan oinarritutako ikaskuntzak transmititzeaz gain, egungo gizarteko erronkei erantzun behar dio, gizarte demokratiko eta inklusiboa eraikitzeko beharraren inguruan (Peixoto et al., 2012). Hortaz, pertsona ororentzako hezkuntza eskubidea bermatzea Estatuaren erantzukizun juridikoa da. 2/2006ko hezkuntza legeak heziketa ibilbide segurua eta gizakiaren desberdintasun indibidualak errespetatzea eskatzen du, betiere diskriminazioa saihestuz (Jefatura del Estado, 2006). Hala ere, haur transgeneroek ez dute beti babes hori jasotzen; zenbait ikerketek agerian uzten dute eskola transgeneroen eta orokorrean, LGTB ikasleen biktimizaziorako leku gako bat dela (Russell et al., 2010, Bullidok eta Mateosek aipatua, 2017). Izan ere, ikastetxeko instituzioek, nahi gabe bada ere, bazterketa-mekanismo propioak eta sistema bitarrean oinarritutako praktikak mantentzen dituzte (Pichardo, Puche eta Moreno, 2013, Carvajal Villaplanak aipatua, 2018), transfobia sustatuz.

Transfobia edo pertsona transexualen edo transgeneroen aurkako indarkeria, batez ere, hizkuntza edo jazarpen gisa agertzen bada ere, mehatxu, txantxa, ziberbiolentzia, eraso fisiko, sexu indarkeria edo irainen bidez ere somatu daiteke (FELGTB, 2019). Diskriminazio hau, orokorrean, gizarte arauetara eta familiaren itxaropenetara egokitu ezin izanaren ondorioz ematen da (Martínez, 2016, Carvajal Villaplanak aipatua, 2018).

Ildo beretik eta argitaratutako azken datuak kontuan hartuta, 16 eta 24 urte bitarteko transen %58-ak eskolan transfobia jasan zuen, eta nahiz eta horietako %20-ak inolako laguntzarik aurkitu ez izan, %40-ak beste ikasle batzuetan eta %15-ak irakasleetan laguntza lortu zuten. Hasierako ehunekoak hain nabarmena izatearen arrazoi nagusia adin tarteak da; izan ere, ikasleek transfobia batez ere Bigarren Hezkuntzan jasaten dute (%37), ondoren Lehen Hezkuntzan (%25), Batxilergoan edo Lanbide Heziketan (%22) eta Haur Hezkuntzan (%9) sufrituz eta azkenik, Unibertsitatean (%7) (FELGTB, 2019).

Hori dela eta, diskriminazio horrek eraginak izaten ditu pertsonaren formazio prozesuan, adineko pertsona transgenero askoren kasuan, ikasketak alde batera uzteko erabakia hartuz eta modu horretan, hezkuntza maila baxuagoa lortuz (Herrero eta Díaz, 2009, 103. or.). Hortaz, transfobiak hezkuntza-kalteak sorrarazi ez ezik, biktimen bizitza emozionalari eta psikologikoari ere eragiten dio, muturreko kasuetan suizidioa ekarritz (Martínez, 2016, Carvajal Villaplanak aipatua, 2018).

Bestetik, hezkuntza sisteman, transexualitate eta transgenero gaien inguruko isiltasuna nagusitzen da (Peixoto et al., 2012). Hala ere, transgenero eta transexual kasuak ikastetxeetako ikasgeletan aurkezten dira, horrek, irakasleek landu beharreko gaiak direla agerian utziz (Carvajal Villaplana, 2018), eskola identitate indibidualaren eraikuntzarako toki gakoa baita (Peixoto et al., 2012). Izan ere, irakasleen eta gainontzeko ikasleen laguntza eta ulermen eza, bakardadea eta gaitzespen beldurra nor diren adierazteko oraindik ere presente daude eskola eremuan, besteak beste. Ikastetxearen kudeaketarekin lotura duten alderdiek ere aurreko sentimendu hauetan eragiten dituzte; hala nola uniformearen generoaren arabera bereiztea edo generoaren arabera banaketa zehaztea hezkuntza fisikoan edo komunetan (FELGTB, 2019). Beraz, adituen arabera, eskolen antolamenduan eraldaketak beharrezkoak dira, baita formazio eta programazio gehiago irakasleentzat ere, esate baterako, *Berdindu Eskolak* zerbitzuaren bidez (Garcia, 2017; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2016).

Ildo beretik, irakasleek gaiarekiko ezagutza izateak, gaiarekiko onarpena, errespetua eta normaltasuna sustatzeko aukera emango luke, eskola ingurune segurua eta aberasgarria sortuz (Garcia, 2017). Izan ere, haien hezkuntza-ekintzen eta eguneroko praktiken bidez, errespetuaren, tolerantziaren eta aniztasunaren onarpenaren balioak transmititu ditzakete lehen adinetatik (Bullido eta Mateos, 2017).

Hortaz, esan daiteke, hezkuntza transfobia arintzeko metodo eta modu eraginkorrenetarikoa dela, horren bidez etorkizuneko belaunaldiek aniztasuna gizartearen atal bat dela onartzea erdietsiz (Spalding et al., 2010, Bullidok eta Mateosek aipatua, 2017). Beraz, ezinbestekoa da eskolako curriculumean sexu-aniztasunarekin lotutako gaiak txertatzea LGTBiaren estigma gizartearen desagerrarazteko, baita hezkuntza sistema hezkidetzaila eta inklusiboa lortzeko ere (Stee-eilas, 2015).

#### 1.3.1.1. Transgenero gaia lantzeko materiala Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalean

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalean transgenero gaia lantzeko materialari dagokionez, batetik, gidak, eta bestetik, material didaktikoak bereizten dira.

Gidei dagokienez, 2007. urtean hezkuntza pertsona transgenero eta transexualen errealitatera gerturatzeko helburuarekin, *Guía didáctica sobre la transexualidad para jóvenes y adolescentes* deituriko materiala garatu zen (Comisión de Cultura de COGAM, 2007). Gidekin jarraituz, Eusko Jaurlaritzak *Aldarte* zentroarekin (Gay, Lesbiana eta Transexualen Arretarako Zentroa) batera, nerabeak pertsona transen errealitatera hurbiltzeko eta hortaz, transgeneroa nola ulertu azaltzeko gida bat sortu zuen, bai gazteentzat, bai hezkuntza eragileentzat (Mujika Flores, 2012). Ildo beretik, 2013. urtean *Gehitu* eta *Errespetuz* erakundeek sortutako *Hablemos de transexualidad* gida didaktikoa ere hezkuntza sisteman eskuragarri dago (Errespetuz eta Gehitu, 2013). Azkenik, gidekin bukatzeko, transexualitate egoeran daudenei arreta integrala emateko gida aurrera eramatez gain (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Osasun Saila, 2016), urte berean ikastetxeei zuzendutako protokolo bat burutu zen, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntza eskaintzeko (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016).

Bestetik, hezkuntza formalerako material didaktikoari dagokionez, *Naizenek* (aurretik *Chrysallis Euskal Herria* izenarekin) adingabeekin haurren transexualitatearen gaia ikasgeletan lantzeko, *Neskak eta mutilak. Identitatea eta gorputza* deituriko material didaktikoa argitaratu zuen 2016. urtean (Chrysallis Euskal Herria, 2016). Atal honen barruan, ikus-entzunezko material didaktikoa ere dago; hala nola *Zakila duten neskak. Bulba duten mutilak. Aniztasunaren adierazpen bat* bideoa (Chrysallis Euskal Herria, 2017). Horrez gain, *Neskak eta mutilak. Sexu-aniztasunaren balioa* (Crujera, Alvarado

eta Mayor, 2018) eta *Estereotipoak apurtuz* (Stee-eilas, 2013) unitate didaktikoak hezkuntza sisteman erabilgarriak diren materialak dira.

Azkenik, transgenero gaia indartzeko, hezkuntzan aniztasun sexuala lantzeko gidak eta materialak ere eskuragarri daude. Giden artean, *Sexualitatearen Koloreak* (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, 2017) eta *Genero eta aniztasun sexualerako gida* (Stee-eilas, 2015) idatzi dira, genero eta sexu-aniztasunaren gaia gizartean ikusgarriago egiteko. Unitate didaktikoei dagokienez, *Ortzadar gara* materiala argitaratu da, besteak beste, genero eta aniztasun afektibo-sexuala askatasunez bizitzen laguntzeko (Stee-eilas, 2017).

### 1.3.2. Transgeneroa eta familia

Haurtzaroan, haurrak bere burua eta bere ingurukoena ezagutzen hasten dira eta norbera ezagutzeko modu egokia bere generoa identifikatzea da (Jennigs, 2016, Bullidok eta Mateosek aipatua, 2017). Beraz, badira bere jaiotzeko sexuarekin eta honi tradizionalki lotutako generoarekin eroso sentitzen direnak, baina badira sailkapen honekin konforme sentitzen ez diren beste batzuk ere. Hortaz, genero identitatearen identifikazio prozesu horretan familiak kontuan hartzea guztiz beharrezkoa da. Izan ere, genero identitatearen identifikazioa haurtzaroko lehen urteetan hasten den prozesua da (Gavilán Macías, 2014), familia haurren haurtzaroko lehenengo laguntza eta euskarri-sarea delarik (Suárez eta Vélez, 2018).

Hori dela eta, transgenero izatearen lehen ikusgarritasuna familia ingurunean ematen da. Familia bakoitzak modu ezberdinean erreakzionatzen badu ere, orokorrean, familia guztientzat prozesu zaila izaten da transgeneroen errealitatea onartzea. Hala ere, hasieratik egoera modu naturalean onartzen duten gero eta familia gehiago daude; hau da, gero eta gehiagok haien seme-alabek genero identitatea askatasunez hautatzeko borroka aitortzen dute. Dena den, haur transgenero gehienek sekretuan gordetzen dute haien genero identitatea jada ezinezkoa den arte; horregatik, errebelazio honek guraso gehienak harritzen ditu (Herrero eta Díaz, 2009, 74. or.).

Hortaz, familiak eginkizun nabarmena du haurtzaroan; alde batetik, gizabanakoek garapen pertsonal eta sozial ona izateko behar dituzten baliabideak eskaintzea, eta bestetik, errespetuan eta enpatian oinarritutako komunikazio egokia ezartzea. Era horretan, umeei edozein gauza familian azaleratzeko konfiantza eta segurtasuna izango dute, beldurrik gabe (Cardona, Valencia, Duque eta Londoño-Vásquez, 2015, Suárezek

eta Vélezek aipatua, 2018; Suárez eta Vélez, 2018). Beraz, transgeneroek eta transexualek haien genero identitatea ezkutuan gordetzea ekiditeko gunea ahalbidetuko da.

Modu horretan eta familia giro on eta osasuntsu batek, diskriminazio soziokulturalak transgeneroei eragindako ondorio emozionalak nabarmen murriztu ditzake (Leiva Peña, 2016), familia haurtzaroko garapen kognitiboan, pertsonalean, emozionalean eta sozio-emozionalean gehien eragiten duen eremua baita (Ruiz de Miguel, 1999).

Hala ere, nahiz eta familia gehiagok transexualitatea eta transgenerismoa onartzen duten, hitz hauek esan nahi dutenaren ezjakintasuna eta kondena sozialaren beldurra dira familiaren kezka nagusiak, baita azken horren ondorioz pertsonak pairatu dezakeen sufrimendua ere. Beste familia batzuek, aldiz, ezin dute gizartean ezarrita dagoen presio soziala jasan; beraz, haurrak egoera birplanteatu dezan ahalegintzen dira, egoera iragankorra izan daitekeela pentsatuz (Herrero eta Díaz, 2009, 75. or.).

Hortaz, familiek haien seme-alabei euskarria eman ahal izateko, askotan laguntza eskatu behar diete profesional desberdinei. Izan ere, familiek ez dute jakiten haur transgeneroak nola zaindu eta babestu, ezta egoera berri horri nola aurre egin ere (Naizen Elkarte, 2015).

Dena den, badira kasuak non familiek ez duten pertsonaren genero identitatea onartzen. Ondorioz, ez dute ahaleginik egiten egoera berri horretara egokitzeko eta horrek, psikologikoki batez ere, sufrimendu nabarmena sortzen du (Herrero eta Díaz, 2009, 75. or.). Hori dela eta, familien laguntza ez duten transgeneroek osasun arazo gehiago izateko arriskua dute, hala nola antsietatea, pentsamendu suizidak, arreta falta eta depresioa (Rodríguez-Madera et al., 2016, Francia-Martínez et al. aipatua, 2016).

Beraz, gizabanakoaren benetakotasuna adierazteko askatasuna ahalbidetzen duen ingurune batean hazi diren pertsonak, gurasoen edo gizartearen presiopean hazten direnak baino gaitasun kognitibo eta emozional handiagoak garatuko dituzte (Aramburu, 2016, Leiva Peñak aipatua, 2016).

#### **1.4. Legeak**

Genero identitatearen eraginez ematen diren eskubideen hausketak nabariak dira gure gizartean. Arazo hau agintari eta gizarteko hainbat eragileentzako oso kezagarria da

(Justizia eta Herri Administrazio Saila, 2010). Hori dela eta, azken urteetan lege berriak onartu dira pertsona transak babesteko.

Nafarroa trans legeen aitzindaria izan zen 2009. urtean, legea *12/2009 Foru Legea, azaroaren 19koa, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa* izanik (Nafarroako Foru Aldundia, 2009). Beraz, Nafarroa eta Euskadi, ekainaren 28ko 14/2012ko legearekin, transen eskubideen babesa aldarrikatzen aitzindariak izan ziren. Ildo beretik, Kanariar uharteek, Balentziak eta Euskadik trans pertsonentzako legeak dituzte; Aragoik, Balear uharteek, Kataluniak, Extremadurak, Galiziak, Murtziak eta Nafarroak, aldiz, LGTBI+ komunitateari zuzendutako legedia onartu dute. Gainera, Andaluziak eta Madrilgo Erkidegoak pertsona transei zuzendutako legeak izan ez ezik, LGTBI+ kolektiboarentzako legedia ere zehaztu dute. Dena den, gainerako bost eskualdeek ez dituzte trans eta LGTBI+ legerik indarrean, nahiz eta Kantabrian, Gaztela eta Leonen eta Gaztela-Mantxan legeak aurkeztu eta iragarri dituzten, baina oraingoz ez dituzte onartu (Sevilla Lorenzo eta Barandela, 2018).

Aipatzekoa da, eskualdeko legeria honen oinarria autodeterminazio eskubidea dela: bakoitzak bere generoa, orientazio sexuala, sexua eta gorputzaren definizioa askatasunez eraikitzeko eskubidea duela, aurrekoa egiaztatzen duen txosten psikologikorik behar gabe. Hala ere, Kanariar uharteek eta Euskadik trans legeak zituzten eta informe horiek behar zituzten bi erkidego bakarrak ziren (Sevilla Lorenzo eta Barandela, 2018).

Dena den, Euskadin transexualitatea despatologizatzeko helburuarekin, ekainaren 28ko 14/2012 legearen 3. artikulua aldatu zen, ekainaren 27ko 9/2019 legearen bidez. Artikulu honen aldaketa nagusia transexualek lege honetan xedatutakoaz onura dezaten izan zen; hau da, beren genero identitatea eraiki dezaketela, aldeztatik azken hau egiaztatzen duen diagnostiko eta tratamendu psikiatrikorik edo medikorik behar izan gabe (Eusko Legebiltzarra, 2019; Sevilla Lorenzo eta Barandela, 2018).

Amaitzeko, beste hainbat legeren artean, Euskadiko Administrazio publikoak hezkuntzako curriculumek, metodoek eta baliabideek genero identitateen aniztasuna ulertzeko eta errespetatzeko sostengua ematen dutela ziurtatu du ekainaren 28ko 14/2012 legearen bidez. Aurrekoari lotuta, hezkuntza publikoko irakasle eta ikasleentzako genero identitatearen inguruko programak ahalbidetzeko konpromisoa hartu da, baita ikasle eta

hezkuntza-profesional transexualei babesa eskaintzea bermatu da ere (Eusko Legebiltzarra, 2012, V. kapitulua, 16., 17. eta 18. artikulua).

## 2. Proposamen didaktiko berritzailea: Sentitzen zarena zara

### 2.1. Justifikazioa

Proposamen didaktiko berritzaile honek Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza formalean transgenero gaia euskaraz lantzeko material askorik ez dagoela du oinarri. Hortaz, gaur egungo gizartean dagoen sexu-aniztasuna ezagutzeko baliabideen premia nabaria da, gizartearen pluraltasun horretaz ohartzearekin batera azken hau onartzeko eta errespetatzeko. Ildo beretik, material hau webgune moduan, hau da, era digitalean sortu da ikasleen motibazioa bereganatzeko asmoz eta gaur egungo umeez agertzen duten teknologia berrien gaineko interesa kontuan izanda. Horrez gain, oinarri pedagogiko batekin gauzatu da, honen bidez ikasleek gaia berenganatu dezaten.

### 2.2. Helburuak

Material digital berritzaile honen helburu orokorra, ikasleak gizarteko transgeneroen presentziaz ohartzea eta azken hauen nortasuna ezagutzea eta errespetatzea da. Hala ere, azken hau lortzeko, bestelako helburu zehatz batzuk eskuratu behar dira prozesuan zehar:

- Sexu-aniztasunaren inguruko ezagutzak argitasunez ezagutzea eta ulertzea.
- Transgenero eta hortaz, sexu-aniztasunetik abiatuta, gizartean dagoen aniztasunaz ohartzea, dibertsitatea era positiboan baloratuz.
- Norberaren nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak ezagutzeaz gain, besteenak ere onartzea eta errespetatzea.
- Gizabanakoen arteko elkarbizitza lasaia eta egokia ahalbidetzeko, eguneroko bizitzan gizarte-trebetasunak eta bizikidetzaren arauak oinarri izatea (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015).

### 2.3. Konpetentziak

<b>OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK</b>
<p><b>Konpetentzia sozial eta zibikoa</b></p> <p>Material digital honetan konpetentzia sozial eta zibikoa garatzen da nagusiki. Izan ere, ikasleei bakoitza banakako pertsona dela eta gizartean beste pertsona batzuekin bizi behar dutela ulertarazi nahi zaie, gizarteaz jabetuz eta horrek dakartzan aniztasuna onartuz. Gainera, gizarte-</p>

egoera errespetatzea lortu nahi da, konpromisoa izanda eta elkertasuna adierazita. Beraz, ikasleek giza eskubideetan oinarritutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratuko dituzte; hauek gaur egungo bizitza kolektiboa eta anitza ulertzeko eta demokrazia- eta bakezko elkarbizitza errazteko beharrezkoak direlako.

### **OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK**

#### **Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia**

Hitzeko, hitzik gabeko eta komunikazio digitalerako kompetentzia ikasleek idatzizko komunikazio ulerkor, jariakor, autonomo, sortzaile eta eraginkorra ahalbidetuz lantzen da. Horrez gain, informazioaren eta komunikazioaren teknologia modu kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzean eskuratzen da, ikasteko eta gizartean parte hartzeko xedearekin.

#### **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia**

Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia, transgenerismoaren inguruan eskuratutako informazioa erregistratzearekin batera, azken ezagutza hau ulertzean eta interpretatzean (pentsamendu analitikoa eta kritikoa) sustatzen da. Ildo beretik, gaitasun hau gaiari lotutako ideiak sortzean, hautatzean eta adieraztean (pentsamendu sortzailea), baita baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitean ere lantzen da, ikasitakoaz baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.

#### **Elkarbizitzarako kompetentzia**

Elkarbizitzarako kompetentzia ikasleek norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adierazi ez ezik, besteenak ere ezagutzen eta errespetatzen dituztenean garatzen da. Gainera, gaitasun hau giza eskubideen oinarrian dauden printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren arauak betetzean eskuratzen da.

#### **Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia**

Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia ideiak edo proiektuak sortzean eta hauen bideragarritasuna aztertzean lantzen da, baita planifikatutako ekintzak gauzatzean eta haien baliagarritasuna ondorioztatzean ere. Horrez gain, gaitasun hau egindako ekintzak ebaluatzean eta haien berri ematean sustatzen da.

#### **Norbera izaten ikasteko kompetentzia**

Kompetentzia hau ikasleek hizkuntza digitala, ikaskuntza-prozesuak eta estilo kognitiboa autorregulatzean garatzen da, baita emozioak, sexu-nortasuna, motibazioa eta portaera sozial eta morala kontrolatzean ere. Amaitzeko, prozesuan zehar norberaren erabakien eta betebeharren ardura hartzean, norbera izaten ikasteko kompetentzia indartzen da (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015).



## 2.4. Edukiak

- Transgeneroa eta honi lotutako edukiak eta informazioa identifikatzea, ulertzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Ezagutzak adieraztea, argudioak azaltzea eta arrazoiak ematea.
- Erantzukizun pertsonala eta soziala garatzea.
- Transgeneroekiko diskriminazio eta bidegabekeria soziala esanbidez baztertzea.
- Gizarteko kide guztien arteko elkarbizitzarako arauak, prozedurak eta jarrerak eskuratzea (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2015).

## 2.5. Nori zuzenduta

Proposamen didaktiko berritzaile hau Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Izan ere, alde batetik, heldutasun maila bat behar da gizarteko aniztasuna ezagutzeko, ulertzeko eta gaiaren gaineko gogoeta egin ahal izateko. Beste alde batetik, ezarritako helburuak lortzeko, gaitasun kognitiboa ahalik eta garatuen egon behar da, edukiak ulertzeko nahitaezkoa izanik. Azkenik, baliabidea digitala denez, IKT-en erabilera arduratsua eta egokia ezinbestekoa da; beraz, ikasleek berriazko trebetasunak garatuta izan behar dituzte jarduerak aurrera eramateko eta material honen xedea lortzeko.

## 2.6. Proposamen didaktiko berritzailearen deskribapena

*Sentitzen zarena zara* (<https://alajazne.wixsite.com/sentitzenzarenazara>) ikasleak gizarteko sexu-aniztasunaren inguruan errespetuz hazteko eta hezteko material didaktiko berritzaile bat da. Horretarako, webgune bat diseinatu da joko gisa, *Wix* plataformaren bidez. Bertan, ikasleek transgeneroen inguruko jarduera desberdinak aurkituko dituzte, baita gaiari lotutako baliabide ludiko, berritzaile eta motibagarriak ere. Jolas honek 3 orduko iraupena du, gutxi gora behera. Horrez gain, material honek irakasleentzako *Sentitzen zarena zara* proposamen digital berritzailearen inguruko gida bat eskaintzen du, ikaskuntza-helburuak lortzeko eta ikasleekin proiektua garatzeko baliagarria dena (2. eranskina).

Jolasaren hasieran, *Sentitzen zarena zara* webgunearen aurkezpen txiki bat egiten da, ikasleek bertan burutuko den gaia eta lortu beharreko erronka ezagutzeko (3.1. eranskina). Horrekin batera, jolasa aurrera eramateko arau batzuk zehazten dira, non ikasleek

jarduerak era autonomo eta pribatu batean burutzea eskatzen den, errespetua ezinbesteko baldintza izanik, besteak beste (3.2. eranskina).

Testuingurua eta arauak ezagututa, *Has zaituz!* botoia sakatzearekin batera, ikasleak jarduera mota anitzak egiten hasiko dira. Horretarako, ikasleei eskumara edo ezkerreara joateko aukera emango zaie, batzuetan aurrera jarraitzeko botoia soilik egon arren. Ikasleek egiten duten aukeraketaren arabera, formatu aldetik desberdinak diren jarduerak burutuko dituzte, nahiz eta landutako edukia berdina izango den. Izan ere, ezinbestekoa da ezagutzak modu ordenatu batean ezartzen joatea, lehenengoko ariketetan eskuratutako edukia ondorengo jardueretara transferitzeko. Aipatzekoa da, zenbait kasutan ikaslea jarduerarik gabeko tokira heltzen dela; beraz, kasu horietan, *itzuli* botoiaz baliatuz, ibilbidearen beste norabidea hautatu beharko du jarduerak egiten jarraitzeko. Dena den, ikasleek kasu horietan soilik izango dute atzera bueltatzeko aukera.

#### 2.6.1. Jardueren deskribapena

*Sentitzen zarena zara* webgunea 15 ariketa desberdinez osatuta dago, nahiz eta soilik horietako 10 burutzen diren norabide bakoitzetik joanda (3.3. eranskina). Jarduera gehienak *educaplay* eta *Genail.ly* plataformen bidez sortu dira. Bertan, transgeneroa izatea zer den ikasi ez ezik, gaiarekin lotura duten eremu desberdinak ere garatzen dira. Hau da, webgunea 6 ataza desberdinetan banatuta dago. Hala ere, ariketez gain, kontzeptu edo eduki zehatz batzuk ulertzeko, azalpen, bideo eta baliabide desberdinak ere eskuragarri daude webgunean. Beraz, hauetan arreta eta ulermena beharrezko gaitasunak izango dira, eskuratutako ezagutza horiek burutu beharko dituzten ariketetan modu eraginkor batean aplikatzeko. Horrez gain, aipatzekoa da, ariketetan erantzun desegokia aukeratzekoan, jarduera guztiek berriro saiatzeko aukera edo ikasleek egindako okerren zergatia ulertzeko eta haietatik ikasteko erantzunak eskaintzen dituztela, ikaskuntza eraginkorra eta aberasgarria lortuz.

Jarduerekin hasteko, *Has zaituz!* botoia sakatu ondoren, ikasleek lehenengo atal honetan sexua eta generoaren arteko desberdintasuna ulertu beharko dute gai nagusia garatzeko. Horretarako, sortutako *Sexua eta generoa desberdintzen* abestia entzun beharko dute (3.4. eranskina). Ondoren, bai eskumatik eta bai ezkerretik abiatuta ere, *Sexua eta generoa berdina al da?* jarduera aurrera eramango dute. Ariketa horretan, sexua eta generoaren inguruko bideo bat ikusiko dute eta tarteka galdera batzuk erantzun beharko dituzte (3.5. eranskina). Ezagutzak behar bezala finkatu diren baieztatuz,

ikasle batzuek *Nor da nor?* jolasa burutuko dute. Bertan, ikasleek pertsona desberdinen irudiak eta izenak ezagututa eta sexua eta generoaren inguruko pistak oinarri izanda, deskribatzen den pertsonaia asmatu beharko dute (3.6. eranskina). Beste norabidea hartuz gero, *Ba al dakizu nor naizen?* jolasa garatuko dute, zeinak aurrekoarekiko eduki berdinak lantzen dituen (3.7. eranskina).

Oinarrizko kontzeptu horiek zehaztuta, hurrengo azpigaian transgeneroa izatea zer den ulertzeko, aukeratutako bidearen arabera, batzuek *Munduak guztiontzat beharko luke* bideoa ikusiko dute. Ondoren, *Eta zer da transgeneroa?* jardueran, ikasleek aurretik entzundakoaren inguruko galdera batzuk erantzungo dituzte transgenero terminoa ezagutzeko (3.8. eranskina). Aldiz, ibilbidearen beste norabidea hautatuz gero, gauza berdina egin beharko dute, baina bideoa ikusi beharrean, istorio berdinen komikia irakurriko dute eta *Transge...zer?* ariketa burutu (3.9. eranskina).

Jada transgeneroa zer den dakiten arren, hau praktikara eramateko, ikasleek aurrera jarraituz, *Inguratzen gaituen gizartea ezagutzen* jarduera egingo dute. Bertan, agertzen diren pertsonaiak neska edo mutil sailkatu beharko dira, baita transgeneroak direnak borobildu ere (3.10. eranskina). Horrez gain, arazoak edo zalantzak izatekotan, hitzez eta irudiz baliatutako azalpen gehigarriak eskuragarri izango dituzte. Beraz, ariketa honetan, aurretik ikasitako guztia praktikan jarriko da. Hala ere, hurrengo atalera jarraitzeko prest dauden berresteko, edozein norabidetik abiatuta, ikasleek transgeneroen inguruko galdera bati erantzun beharko diote *mailaz igarotzeko gai al zara?* izenekoa (3.11. eranskina).

Hurrengo atazan, ikasleek irudi interaktibo bat ikusiko dute, transexuala eta transgeneroa izatearen arteko desberdintasuna zehazteko (3.12. eranskina). Izan ere, gaur egungo gizartean askotan nahasten diren bi kontzeptu dira eta beraien erabilera okerrak min handia sortu dezake. Ondoren, ikasleek *Ur handiko* telesaileko atal bat ikustearekin batera, transexual eta transgeneroen inguruko galderak erantzun beharko dituzte. Hau aurrera eramateko *hizkera egokia garatu*, ezkerretik, edo *sinonimoak al dira?*, eskumatik, jarduera egin beharko dute (3.13. eranskina, 3.14. eranskina). Hurrengo sailera igaro aurretik, transexual eta transgenero hitzen esanahiak gogoratuko dira (3.15. eranskina).

Ondorengo azpigaian, aurrera jarraituz, ikasleei transgeneroen orientazio sexualaren inguruan zabalduta dagoen mito bat aurkeztuko zaie: transgenero gehienak homosexualak dira. Beraz, aurrekoaren errealitatea erakusteko, ikasleek sortutako *Orientazio sexuala*

izeneko bideoa ikusiko dute (3.16. eranskina). Bertako protagonista nagusia neska transgenero bat da eta bere esperientzia azaltzearekin batera, bera heterosexuala dela azaltzen du. Ikasleek bideoa ikusi aurretik, bertan erabiltzen diren kontzeptuak argitasunez ulertzeko, *azalpen didaktikoa* botoia sakatuz gero, homosexual eta heterosexual hitzen inguruko azalpenak eskuragarri izango dituzte (3.17. eranskina).

Ildo beretik, ikasleek lortutako ezagutzaz baliatuz, hurrengo jarduera bat egin beharko dute, ezkerreko norabidetik joanda, *mitoak apurtzen* edo eskumakotik joanda, *egiaren bila* deiturikoa (3.18. eranskina, 3.19. eranskina). Bertan, egin behar desberdinak izango dituzte. Alde batetik, bikotearen partaide bat emanda eta bikotea heterosexuala edo homosexuala dela zehaztuta, ikasleek irizpide hori betetzeko behar den bikotearen bigarren partaidea aukeratu beharko dute. Bestetik, bikotea agertuta, heterosexuala ala homosexuala den asmatu beharko dute. Azkeneko jarduera, aldiz, alderantziz izango da; hau da, bikotea heterosexuala ala homosexuala dela jakinda, argibidean adierazitako bikotea zein den adierazi beharko dute. Aipatzekoa da, hautaketa egiterako orduan, ikasleek bi aukera posible izango dituztela, bata okerra eta bestea egokia.

*Aurrera* botoia sakatu ostean, transgenero gaien zehar ikasitako guztia errepatatzeko, ikasleek taula bat aztertuko dute (3.20. eranskina). Ondoren, aurrera jarraituta, ikasleek gizartean gorputz ez normatiboekiko ematen den diskriminazioa landuko dute, azken hau transfobia deituz. Horretarako, Ekairen istorioa ezagutuko dute egunkariko albiste baten bidez (3.21. eranskina). Hortaz, gertutakoa irakurri ondoren, ikasleei honen inguruan hausnartzera gonbidatuko zaie *Idatzi ezazu* botoia sakatuz, horretarako *Band* plataforma erabiliz (3.22. eranskina). Izan ere, bertan ikasleek haien ekarpenak era pribatu batean partekatzeak aukera izango dute, soilik moduluaren administratzaileak onartzen dituen horiek sartzeko parada izanik. Atal honetan, Ekairen laguna izateko edo laguntza emateko egingo zuketena azalduko dute, betiere errespetua oinarri izanda.

Jarraian, transfobia onartezina dela ikusgarri usteko, ikasleek haientzat erakargarriak diren *Goazen*-eko abesti batzuk entzungo dituzte, letrari arreta jarritz. Modu horretan, ezkerreko botoia sakatuta, *ezjakintasunaren kontrako sendagaia: abestea* ariketan, ikasleek abestiek transmititu dituzten mezuak hautatu beharko dituzte, hauek errespetu eta elkarbizitza mezuak izanik (3.23. eranskina). Dena den, eskumako norabidea hautatuta, *bidegabekeriaren aurkako borroka guztion artean irabaziko dugu* izeneko jarduera egingo dute, edukia eta funtzionamendua berdinak direlarik (3.24. eranskina).

Bukaeran, jada sexu-aniztasunari buruzko hainbat ezagutza izanda eta azken jardueran lortutako mezu baikorretan oinarrituta, bai ezkerretik, bai eskumatik abiatuta, ikasleek mikroipuin bat idatzi beharko dute. Jarduera *Band* plataformaren bidez burutuko dute, *Orain zure txanda da* botoia sakatuz (3.25. eranskina). Guztiak jaso eta irakurri ondoren, irabazle bat aukeratuko da, zeinak *Jonek Jone izan nahi du* liburua sari gisa jasoko duen.

### **3. Balioztatze proba**

#### **3.1. Helburua**

Balioztatze proba honen helburu nagusia umeei *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailearekiko duten asebetetasun maila neurtzea da.

#### **3.2. Lagina**

*Sentitzen zarena zara* material digital berritzailea 6 eta 12 urte bitarteko haurrekin jarri da praktikan. Beraz, materiala aztertu ondoren, 48 umek azken honi lotutako galdetegia erantzun dute. 48 ume horietatik %4,16-a Lehen Hezkuntzako 1. mailako umeak izan dira, %8,3-a 2. mailakoak eta %16,6-a, aldiz, 3. mailakoak. 48 haur kopuru horrekin jarraituz, %18,75-a Lehen Hezkuntzako 4. mailako umeak izan dira, %20,8-a 5. mailakoak eta azkenik, %31,25-a 6. mailako haurrak (4.1. eranskina)

Aipatzekoa da, material hau Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat pentsatuta zegoela. Hala ere, gaur egungo COVID19ak sortutako egoera ez-ohiko honetan, proposamen digital berritzaile hau praktiketako eskolan frogatzeko aukera ezinezkoa izan da. Hori dela eta, erabiltzaileen adin tartea zabaldu behar izan da.

#### **3.3. Metodologia**

Balioztatze proba honen xede nagusia lortzeko inkesta bat sortu da *Google galdetegi*-ren bidez. Bertan, umeei *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailean frogatutako baliabideen eraginkortasuna adierazi dute galdera itxi eta irekien bidez. Galdetegia modu individual batean eraman da aurrera, ume bakoitzaren iritziak argitasunez ezagutzeko.

Galderekin hasteko, galdetegiak 6 galdera zituen eta erantzun duten haurren adina eta hezkuntza-maila zehaztea ezinbestekoa izan da, eragile hauen arabera, material berritzaile honek sorrarazitako emaitzak identifikatzeko. Horrez gain, proposamenean aurkitutako baliabide desberdinen bidez ikaskuntza garapen bat eskuratu duten galdetu da, baita modu digital hau ezagutza-garapena ahalbidetzeko aukera onuragarria izan den ere.

Ildo beretik, proba honen helburua zehazten laguntzeko, inguruko bati material hau gomendatuko zioten planteatu da. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko eskoletan transgenero gaiaren lanketa eta azken hau garatzeko materialen erabilera zehazteko, haurrei haien ikastetxeen inguruko galdera batzuk egin zaizkie.

Amaitzeko, aipatzekoa da, *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailea eta honi lotutako galdetegia bai korreoz eta bai *whatsapp* bidez ere zabaldu direla, ahalik eta pertsona gehiagori heltzeko eta modu horretan, emaitza esanguratsuagoak lortzeko.

### 3.4. Emaitzak

Galdetegia Lehen Hezkuntzako 48 umek erantzun dute, erantzunen %52,3-a 10-12 urteko haurrenak izanik. Beraz, helburu nagusia material digital berritzaile honen asebetetasun maila ezagutzea eta balioztatzea izanik, umeen %79,2-ak *Sentitzen zarena zara* materialarekin asko ikasi duela adierazi du. Aldiz, %20,8-ak ezagutza batzuk barneratzeko aukera izan duela zehaztu du (4.2. eranskina).

Hortaz, material honek ahalbidetu duen hezkuntza garapena dela eta, %37,5-ak transgenero kontzeptuaren esanahia ikasi duela jakinarazi du. Horrez gain, ehuneko horretan oinarrituta, %11-ak transgeneroen orientazio sexualari aipamena egin dio. Ildo beretik, %22,9-ak transgeneroekiko errespetua izatea ezinbestekoa dela adierazi du, lan osoan zehar funtsezko garrantzia izan duen ataza izanik. Azkenik, %20,8-ak sexu eta genero terminoen desberdintasuna ulertu duela zehaztu du, baita %18,8-ak transgenero eta transexual hitzena ere (4.3. eranskina).

Aurrekoari lotuta, umeen %89,6-ak erabili den material digitala egokia dela uste izan du. Bestetik, %10,4-ak materialaren zenbait alderdi apur bat hobetu litezketela jakinarazi du. Beraz, ume kopuru handi batek materiala onuragarri izan dela adierazi duen bezala, %87,2-ak ere lagun bati gomendatuko ziola aipatu du eta %12,8-ak pentsatu beharko zuela zehaztu du. Hala ere, erantzunak orokorrean baieztokoak izan dira, materialak umeengan eragin positiboa izan duela agerian utziz (4.4. eranskina, 4.5. eranskina)

Amaitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan, %87,5-ak ikasgelan transgeneroaren gaia landu ez duela adierazi du. Aldiz, %12,5-ak baieztokoa erantzun du, ehuneko horretatik %60-ak *Chromebook*-a edo ordenagailua gaia lantzeko tresna gisa zehaztuz. Hala ere, 4. mailako ikasle batek bere ikasgelako ume baten egoera azaltzeko, liburuen erabilera nagusitu dela adierazi du: *Nire gelan zakilarekin jaio zen neska bat dago* (4.6. eranskina).

#### 4. Ondorioak

Marko teorikoa eta material digital berritzailea sortzeak transgenero gaiarekiko ondorio batzuk ateratzeko parada eman digu. Beraz, hurrengo lerroetan, alde batetik, Gradu Amaierako Lan hau burutzean gailendu diren alderdiak jakinaraziko dira. Beste alde batetik, lana burutzerakoan izandako mugak eta oztopoak aipatuko dira. Amaitzeko, sortutako material digital berritzailearen baliagarritasuna adieraziko da, baita etorkizunari begira zehaztutako erronkak ere.

Hasteko, *Sentitzen zarena zara* lanari esker, gizartean presente dagoen sexu-antiztasunarekiko eta transgeneroekiko jakintza-maila osatzeko aukera eman da. Gainera, azken horiek merezi duten errespetua azpimarratzea xede nagusietariko bat izan da lan osoan zehar. Izan ere, transgeneroen presentzia egungo errealitatea izan arren, gizartean konnotazio negatiboa izaten jarraitzen du, hezkuntza sisteman gaiarekiko isiltasuna oraindik ere nagusi izanik. Hori dela eta, gaiaren lanketak hezkuntzan ezinbesteko premia duela ikusita, lan hau aurrera eramatea adostu da. Izan ere, eskolan ikasleek euren nortasuna eraikitzen hasten dira (Peixoto et al., 2012). Beraz, genero binarismotik kanpo dauden identitateen presentzia ikasgeletan aurkeztea eta azaltzea, ikasleek errealitate hori ezagutzeko eta onartzeko funtsezkoa da. Modu horretan, alde batetik, ikasle tolerantetia hezteko aukera agerian geratzen da, gaur egungo gizartean ezinbesteko balioa izanik. Bestetik, ikasgela ingurune segurua bihurtuz, eredu bitar horretatik kanpo dauden ikasleei haien identitatea azaleratzeko askatasuna ahalbidetzen zaie.

Ildo beretik, lan honek zenbait termino argitasunez ulertzeko parada agerian utzi du, hauen erabilera egokia bermatuz. Izan ere, transgeneroen inguruko terminologiari ez zaio orokorrean arreta berezirik jartzen. Hortaz, sarritan, ez da kontzeptuen erabilera txarrak pertsonengan eragiten duen sufrimendua aintzat hartzen, berriro ere kolektibo honekiko gutxiespena nabarmena izanik.

Hala ere, ezarritako xede hauek eskuratzeko, oztopo batzuei aurre egin behar izan zaie bai marko teorikoa, bai material digital berritzailea eratzean. Alde batetik, marko teorikoa sortzean, transgeneroaren inguruko informazioa beste gai batzuekin aldaratuta nahiko murriztua izan da; askotan, transgenerismoa buru nahaste gisa sailkatzen jarraituz.

Beste aldetik, Gradu Amaierako Lan honetan sortutako material digital berritzailea Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin frogatzeko eta gaiarekiko duten jarrera

zuzenean behatzeko ezintasuna oztopo nabarmenena izan da. Izan ere, *Coronavirus*-a dela eta, hezkuntza-zerbitzua ez-presentziala izatera igaro da. Hori horrela izanik, erantzun nahikoak jasotzeko aukera berresteko eta Lehen Hezkuntzako ikasleek materialarekiko duten asebetetasun maila ezagutzeko xedearekin, proposamena adin tarte zabalagoko umeekin praktikan jarri da. Beraz, *Sentitzen zarena zara* material didaktiko berritzailea eremu desberdinetan zabaltzearekin batera, familia batzuek arrazoi desberdinengatik transgenerismoaren lanketa alde batera uztea erabaki dute, gaiarekiko isiltasuna berriro ere nagusituz. Hortaz, kasu hauek burututako lanaren prozesua zaildu duten arren, beste familia askok materiala haien seme-alabek haurtzarotik gaiarekiko hurbilketa bat esperimendatzeko erabili dute.

Beraz, aurrekoan oinarrituz, lan hau txikitatik gizarte anitzaren ikuspegi inklusiboa ahalbidetzeko lagungarria dela ondorioztatu da, horren bidez errespetuzko elkarbizitza indartuz. Horrez gain eta jasotako emaitzak kontuan hartuta, materiala gomendagarria delakoan gaude. Izan ere, aurretik aipatutako ikasle zisgenero eta transgeneroentzako leku lasai eta askea baimentzeaz gain, lan honek irakasleentzako *Sentitzen zarena zara* material digital berritzailearen inguruko gida bat eskaintzen du. Hortaz, azken honek irakasleak proposamenaren nondik norakoak ezagutzeko aukera eraginkorra suposatzen du, zehaztutako ikaskuntza-helburuak erdiesteko aberasgarri suertatuz.

Amaitzeko, material honek izandako harrera ona oinarri izanda, elkarre batean aurkeztea da etorkizunera begira zehaztutako erronka. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako gelan material hau erabilgarria izan daitekeelakoan gaude eta hori sustatzea ere dugu helburu. Hortaz, ezinbestekoa dugu eskolan, lan osoan zehar aipatutako helburua lortzeko bideak zabaltzea, hots, umeei transgenero gaia ezagutzea eta azken hau errespetatzearekin batera, gizartearen dagoen aniztasuna era positiboan baloratzea.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Borraz, M. (2018, Ekainak 18). La OMS deja de considerar la transexualidad un trastorno mental. *eldiario.es*. 2020-03-18an berreskuratuta [https://www.eldiario.es/sociedad/OMS-considerar-transexualidad-enfermedad-incongruencia\\_0\\_783572396.html](https://www.eldiario.es/sociedad/OMS-considerar-transexualidad-enfermedad-incongruencia_0_783572396.html)-tik.
- Bullido, A. eta Mateos, A. (2017). La actualidad del transgenero en España y su posible interés como contenido formativo. *Diversidade e Educação*, 5(1), 32-41. 2020-03-08an berreskuratuta <https://periodicos.furg.br/divedu/article/view/7384>-tik.
- Carvajal Villaplana, Á. (2018). Transexualidad y transfobia en el sistema educativo. *Revista Humanidades*, 8(1), 1-31. 2020-03-09an berreskuratuta <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6238088>-tik.



- Chrysallis Euskal Herria. (2017). *Zakila duten neskak. Bulba duten mutilak. Aniztasunaren adierazpen bat*. 2020-04-16an berreskuratuta <https://naizen.eus/eu/portfolio/zakila-duten-neskak-bulba-duten-mutilak-aniztasunaren-adierazpen-bat/-tik>.
- Chrysallis Euskal Herria. (2016). *Neskak eta mutilak. Identitatea eta gorputza*. Naizen Elkartea. 2020-04-16an berreskuratuta <https://naizen.eus/eu/portfolio/neskak-eta-mutilak-identitatea-gorputza/-tik>.
- Comisión de Cultura de COGAM. (2007). *Guía didáctica sobre la transexualidad para jóvenes y adolescentes*. Madrid: Comisión de Cultura de COGAM. 2020-04-15ean berreskuratuta [http://transexualia.org/wp-content/uploads/2015/03/Apoyo\\_guiadidacticajovenes.pdf-tik](http://transexualia.org/wp-content/uploads/2015/03/Apoyo_guiadidacticajovenes.pdf-tik).
- Crujera, M., Alvarado, J. eta Mayor, A. (2018). *Neskak eta mutilak. Sexu aniztasunaren balioa*. 2020-04-15ean berreskuratuta <http://www.niñasyniños.com/wp-content/uploads/2018/09/Unitate-Didaktikoa-1-Gidoia.pdf-tik>.
- Del rio, C. (2016, Ekainak 15). La sociedad no es homogénea, hay que asumir la diferencia. *El comercio*. 2020-03-02an berreskuratuta <https://www.elcomercio.es/aviles/201606/15/sociedad-homogenea-asumir-diferencia-20160615003803-v.html-tik>.
- El Confidencial. (2019, Maiatzak 30). La OMS elimina a las personas transgénero de su lista de enfermedades mentales. *El Confidencial*. 2020-03-18an berreskuratuta [https://www.elconfidencial.com/mundo/2019-05-30/transgenero-oms-considera-enfermedad-mental\\_2044090/-tik](https://www.elconfidencial.com/mundo/2019-05-30/transgenero-oms-considera-enfermedad-mental_2044090/-tik).
- Errespetuz eta Gehitu. (2013). *Hablemos de transexualidad*. 2020-03-22an berreskuratuta [https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/emaize\\_materiala\\_14/es\\_def/adjunto/s/9\\_guia\\_didactica\\_hablemos\\_de\\_transexualidad\\_gehitu.pdf-tik](https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/emaize_materiala_14/es_def/adjunto/s/9_guia_didactica_hablemos_de_transexualidad_gehitu.pdf-tik).
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua [EGK]. (2017). *Sexualitatearen Koloreak. Aniztasun sexualari buruzko gida*. Bizkaiko Foru Aldundia. 2020-04-16an berreskuratuta <https://egk.eus/wp-content/uploads/2017/03/Sexualitatearen-Koloreak.pdf-tik>.
- Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. (2016). *Familia Politika eta Aniztasuna: Berdindu Eskolak*. 2020-03-19an berreskuratuta <https://www.euskadi.eus/informazioa/berdindu-eskolak/web01-a2berdin/eu/-tik>.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). *Ikastetxei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko*. 2020-03-21ean berreskuratuta [http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/eu\\_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/9202016002e\\_Pub\\_EJ\\_protokolo\\_trans\\_e.pdf-tik](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/eu_def/adjuntos/eskola-inklusihoa/9202016002e_Pub_EJ_protokolo_trans_e.pdf-tik).
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2015). *Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*. 2020-03-18an berreskuratuta [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_2\\_proyec/adjuntos/OH\\_curriculum\\_osoia.pdf-tik](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osoia.pdf-tik).
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Osasun Saila. (2016). *Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2020-03-19an berreskuratuta [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia\\_transexualidad/eu\\_def/adjuntos/guia\\_transexuales\\_eu.pdf-tik](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_transexualidad/eu_def/adjuntos/guia_transexuales_eu.pdf-tik).
- Federación Estatal de Lesbianas, Gais, Trans y Bisexuales (FELGTB). (2019, Irailak 9). *Los menores y jóvenes trans sufren más violencias y se declaran menos felices*

- que el resto del alumnado.* 2020-04-15ean berreskuratuta <http://www.felgtb.org/temas/educacion/noticias/i/15705/307/los-menores-y-jovenes-trans-sufren-mas-violencias-y-se-declaran-menos-felices-que-el-resto-del-alumnado-tik>.
- Francia-Martínez, M., Esteban, C. eta Lespier, Z. (2016). Actitudes, conocimientos y distancia social de psicoterapeutas con la comunidad transgenero y transexual. *Revista Puertorriqueña de psicología*, 28(1), 98-113. 2020-04-13an berreskuratuta <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5891759-tik>.
- García, C. (2017, Otsailak 9). Cómo apoyar a estudiantes transgénero en el aula. *Revista educación virtual*. 2020-04-02an berreskuratuta <https://revistaeducacionvirtual.com/archives/2898-tik>.
- Gavilán Macías, J. (2014, Urtarrilak 10). *Transexualidad y familia*. 2020-03-28an berreskuratuta <https://chrysalis.org.es/transexualidad-y-familia/-tik>.
- Herrero, I. eta Díaz, C. (2009). *La situación de las personas transgénero y transexuales en Euskadi*. 2020-04-01an berreskuratuta [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_1719\\_3.pdf-tik](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1719_3.pdf-tik).
- Herrero, J. eta Pérez-Cañaveras, R. (2007). Sexo, género y biología. *Feminismo/s*, 10, 163-185. 2020-03-30an berreskuratuta [https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/6132/1/Feminismos\\_10\\_11.pdf-tik](https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/6132/1/Feminismos_10_11.pdf-tik).
- Justizia eta Herri Administrazio Saila. (2010). *Yogyakartako Printzipioak*. Bilbao: Aldarte. 2020-04-20an berreskuratuta <http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/principiosYogyEusk.pdf-tik>.
- 12/2009 Foru Legea, azaroaren 19koa, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. *Boletín Oficial de Navarra*, 147, 2009ko azaroaren 30a. Hemendik berreskuratuta: <http://www.navarra.es/NR/exeres/8B2EB410-B9A0-442C-9F07-8C0D32AC921E.htm>
- 9/2019 LEGEA, ekainaren 27koa, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa aldatzekoa. *Euskal Herriko agintaritzaren aldizkaria*, 129, 2019ko uztailaren 9a. Hemendik berreskuratuta: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/07/1903347e.pdf>
- 14/2012 LEGEA, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. *Euskal Herriko agintaritzaren aldizkaria*, 132, 2012ko uztailaren 6a. Hemendik berreskuratuta: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2012/07/1203067e.pdf>
- Leiva Peña, V. (2016). Adolescentes transgenero. *Juntos contigo*. 2020-04-15ean berreskuratuta <https://fundacionjuntoscontigo.org/varinia.html-tik>.
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. *Boletín Oficial del Estado*, 106, 2006ko maiatzaren 4a, 17158tik 17207ra. Hemendik berreskuratuta: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2006/05/03/2/dof/spa/pdf>
- Marín, M. (2016). *Situación, discriminación y exclusión de las personas transexuales*. 2020-03-27an berreskuratuta <http://docpublicos.ccoo.es/cendoc/045802SituacionDiscriminacionExclusion.pdf-tik>.
- Mas Grau, J. (2015). Transexualidad y transgenerismo. Una aproximación teórica y etnográfica a dos paradigmas enfrentados. *Disparidades. Revista de Antropología*,

- 70(2), 485-501. 2020-03-21an berreskuratuta  
<http://dra.revistas.csic.es/index.php/dra/article/view/492>-tik.
- Mujika Flores, I. (2012, Abuztua). *Trans gida gazteentzat eta... hezkuntza eragileentzat*. Bilbao: Aldarte. 2020-04-12an berreskuratuta  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/emaize\\_materiala\\_14/es\\_def/adjunto/s/7\\_guia\\_trans\\_aldarte\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/emaize_materiala_14/es_def/adjunto/s/7_guia_trans_aldarte_e.pdf)-tik.
- Naizen Elkarte. (2015). *Adingabe transexualen familien elkartea*. 2020-04-01an berreskuratuta <https://naizen.eus/>-tik.
- Noseda Gutiérrez, J. (2012, Abendua). Muchas formas de transexualidad: diferencias de ser mujer transexual y de ser mujer transgénero. *Revista de Psicología*, 21(2), 7-30. 2020-03-19an berreskuratuta  
<https://www.redalyc.org/pdf/264/26424861001.pdf>-tik.
- Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos. (2013, Azaroak 20). *Orientación sexual e identidad de género en el derecho internacional de los derechos humanos*. 2020-03-29an berreskuratuta <http://acnudh.org/wp-content/uploads/2013/11/orientación-sexual-e-identidad-de-género2.pdf>-tik.
- Peixoto, J. M., Fonseca, L., Almeida, S. eta Almeida, L. (2012). Escuela y diversidad sexual ¿Qué realidad?. *Educação Em Revista*, 28(3), 143–158. 2020-03-27an berreskuratuta <http://www.scielo.br/pdf/edur/v28n3/a07v28n03.pdf>-tik.
- Rocal, C. eta Raboso, L. (2013, Abuztuak 22). Intersexualidad, más que una cuestión de género, una cuestión de salud. *ABC*. 2020-03-16an berreskuratuta  
<https://www.abc.es/sociedad/20130822/abci-intersexualidad-medico-201308211854.html>-tik.
- Rodriguez, L. M. eta Facal, T. (2019). Diversidad sexual: imaginarios y actitudes en estudiantes de enseñanzas medias y superiores mexicanos. *OBETS. Revista de Ciencias Sociales*, 14(1), 183-205. 2020-03-16an berreskuratuta  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6978274>-tik.
- Ruiz de Miguel, C. (1999). La familia y su implicación en el desarrollo infantil. *Revista Complutense de Educación*, 10(1), 289-304. 2020-03-28an berreskuratuta  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=150256>-tik.
- Sevilla Lorenzo, J. eta Barandela, M. (2018, Uztailak 20). El mapa de los derechos trans en España: de la autoafirmación de género al vacío legal. *eldiario.es*. 2020-03-29an berreskuratuta [https://www.eldiario.es/sociedad/personas-trans-comunidades\\_0\\_789172012.html](https://www.eldiario.es/sociedad/personas-trans-comunidades_0_789172012.html)-tik.
- Stee-eilas. (2017). *Ortzadar gara*. Unitate didaktikoa. 2020-04-14an berreskuratuta  
<https://steilas.eus/files/2017/05/Ortzadar-gara.-Unitate-didaktikoa.steilas.pdf>-tik.
- Stee-eilas. (2015). *Guía para trabajar la diversidad afectivo-sexual y de género*. País Vasco. 2020-03-20an berreskuratuta <https://steilas.eus/files/2015/05/GUIA-diversidad-sexual-y-genero.-STEILAS-2015.pdf>-tik.
- Stee-eilas. (2013). *Estereotipoak apurtuz*. 2020-04-14an berreskuratuta  
<https://steilas.eus/files/2013/06/estereotipoak-apurtuz-2013.pdf> -tik.
- Suárez, P. eta Vélez, M. (2018). El papel de la familia en el desarrollo social del niño: una mirada desde la afectividad, la comunicación familiar y estilos de educación parental. *Revista Psicoespacios*, 12(20), 173- 198. 2020-03-28an berreskuratuta  
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6573534>-tik
- Treviño, J. (d.g.). Transgénero. *Etimología del Transgénero*. 2020-04-20an berreskuratuta <http://etimologias.dechile.net/?transge.nero>-tik.